

Ihesi

ALLANDE SOKARROS

Euskal Herria ezagutuz: **Lauhire (Nafarroa Beherea, Zuberoa, Bearn)**

Mugarri zaharren oroitzapen galduetara

Gure herri zaharrean, antzinako kontuei lotutako guneak ez dira eskas. Hauetatik bat da, Ipar Euskal Herriko Lauhire izenekoak. Han zehazki topo egiten dute Bearnok, Nafarroak (Beherea, gaur egun) eta Zuberoak, eta hori gogorarazten dute bi mugarri zahar-zaharrek.

ABIAPUNTU IZANGO DUGU Arboti-Zohota udalerriko auzune den Zohota. Donapaleu eta Salbaterra (Bearn) arteko errepidea utzita, ipar-mendebalderantz bide txikiago bat hartuko dugu, bi kilometro eska-sez Zohotara heltzeko. Eliza alboan utziko dugu ibilgailua, hementxe abiatzen baita oinezko gure txangoa.

Elizatik gorantz —ekialderantz— hasiko gara ibiltzen etxe multzo batera daraman bidean. Hori, hiruzpalau metro ondoren, bide harritatu bilakatzen da, horiz seinalatutako ibilbidea delarik ere. Bidegurutze batera iristean, ezkerrerantz hartuko dugu, burdinazko gurutze bati buruz. Hortik 200 metrora beste bidegurutze

batean, berriz, zuzen joko dugu, hortxe utziko dugularik, aldiz, ibilbide seinaleduna.

Nahiz eta altuera oso gutxikoa izan —200 metro baino baxuago gara— hasiera honetatik oso ederra da ikusmena. Hala, mendebaldera begiratuta, ezagutuko ditugu, hurrenez hurren, Artzamendi, Iparla, Larrun, Urtsumendi eta hegoalderantz, aldiz, Zuberoako eta Bearnoko hainbat gailur, Ahüinemendi eta Orhi tartean. Beste bidegurutze batera heltzean, ezker alderat joko dugu, frantsesek idatzitako bi pankartari buruz: “*Attention, palombières*” (Kontuz, usategiak) eta “*Palombières, sifflez*” (Usategiak, xistu egizue). Baso baten sarrerara heltzean, pankarta batek ohartaraziko digu, aldiz, eremu pribatuan sartzeaz gaudela. Hobe hori ez egitea eta ezkerraldeko alorrean sartzea. Haren hesi edo sapa bazterrari jarraituz, beste alor batean sartuko gara, ertz-ertzetik ibilita beti, eta beherantz seko jaitsiko. Beheko aldean, lur bide labur batek bide txiki-txiki batera eramango gaitu eta horretan eskuin alderat joko dugu.

Lauhire izeneko gunean, Bearnok, Nafarroak eta Zuberoak topo egiten duten leku zehatzean, mugarria eraiki zuten 1395ean.





Zohotako eliza (goian) gure txangoaren abiapuntu izango da. Eskuinean, Bearn eta Nafarroa arteko 1547. urteko mugarria.



Mendetan ahantzitako bi mugarri

300 bat metroren buru, hitzordua daukagu gure herriaren historia aberatsarekin. Ibilgailuentzat egokitutako bidea bukatzen den lekuan, eskuin aldera, ikusiko dugu Lauhireko mugarri zaharra, 1395. urtean hortxe ezarri zutena. Leku horretan, zehatz-mehatz, topo egiten dute Bearnoak, Nafarroak (Nafarroa Beherea, gaur egun) eta Zuberoak. Bearnoa ipar-mendebaldean da, "V" baten forma duen pentze batek

ordezkaturik; Nafarroa, hegoaldean eta mendebaldean, alor eta pentzez osaturik; Zuberoa, ipar-ekialdean, basoz jantzita.

Mugarri zahar hunkigarri honen alboan berriki jarri

duen argibide ohol batek, lau hizkuntzatan –euskara barne, baina bearnesa falta– azaltzen du Karlos Noblea Nafarroako Erregeak zuela zedarri hau jarrarazi. Alegiak dio ere, leku honetan bertan elkartu zirela, 1462. urtean, Aragoi eta Nafarroako Errege Joanek II.a, Bearnoko Bizkonte Kaston IV.a eta Frantziako Errege Louis XI.a eta hortxe bazkaldu zirela. Gune honek menderen mendetako kate luzearekin duen lotura indartzen du, halaber, Donajakuerako Vezelay ibilbidea hortxe igarotzeak.

Lauhireko mugarri zahar hau oso gutxi bada ezagutua, are gutxiago Bearno aldean, 200 metro urrunago, kokaturik den beste zedarri bat, 1547. urtekoa. Honi agur eta ohore egitera joateko, "V" forma duen pentzearen gora joan behar da, ezkerraldeko burdin hesiari jarraituz. Berehala topatuko dugu hesiaren beste aldean –Nafarroa Beherean beraz– kokaturik den bigarren mugarri hau. Esana da Nafarroako errege Enrike II.ak eraikierazi zuela... Bearnoko artzainek ez zituztelako, antza, bazkaleku

mugak errespetatzen! Harri zaharren ekialdeko aurpegian Bearnoko ikurra diren bi behi daude eta mendebaldekoan, jakina, Nafarroako kateak.

Bigarren mugarri zahar honi agurra emanik eta Lauhiredora bueltaturik, itzulerako bidea hartuko dugu. Hasieran, bueltatuko gara etorreran eginiko 300 metro haiekin eta aurrera jarraituko dugu bide txiki horretan. Beste bide batera helduko gara laster eta ezkerraldera hartuko dugu, GR ibilbidearen seinale zuri eta gorriak jarraituz. Bide honek bi kilometro eta erdi eskasean eramango gaitu Zohotara. Herriko lehen bi etxetatik berehala, bidegurutzean ezker hartuta, jarraian iritsiko gara elizara.

Historiaren barrenako ibilbide honek, gehienetik jota, bi ordu baino ez digularik eskatuko, astirik izango dugu Zohotatik bi kilometro mendebaldera kokaturik den Arboti herrira joateko. Haren sarre-rako zubian, oso ikusgarria da 1884tik 1984ra baliatu zen trenbiderako zulatu zuten lubaki sakon eta luzea. ■



Trenbiderako lubakia, Arbotin.



Mikeletegi pasealekua 53 • DONOSTIA
943308220 • www.arbelaitz.com



Arbelaitz Jatetxea